

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIBARRI-JAUREGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onespena ematea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari

Kontzeju honek, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari; espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Horrenbestez, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuak 19. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen dira aldatutako aginduak, indarrean jar daitezzen.

Tasei dagokien ordenantza atala aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

1. Edateko uraren hornidura.

1.1. Uribarri-Jauregiako biztanleak edota bertan bizi direnak.

a) Zerbitzu kuota: 40,00 euro.

b) Kontsumo kuota:

– Etxeko erabilera: 0,40 euro/metro kubo.

– Beste erabilera batzuk (industrialak eta beste batzuk): 0,55 euro/metro kubo.

c) Hargune berriaren tasa: 500,00 euro.

d) Sarera lotzeagatik tasa: 550,00 euro.

1.2. Beste erabiltzaile batzuk.

a) Kontsumo kuota:

– Erabilera guztiak: 0,90 euro/metro kubo.

2. Saneamendua.

a) Urteko kuota finkoa: 20,00 euro/etxebizitza.

Ordenantza honen aldaketa ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea erabakitzen den arte.

Uribarri-Jauregi, 2024ko apirilaren 9a

Lehendakaria

JULEN LÓPEZ-DAVALILLO RUIZ DE ALEGRÍA